



ARTZINIEGAKO HIRIBILDUKO 750. URTEURRENAREN LOGOA

Gaur eguerdian, Udaletxeko Udalbatza aretoan, Artziniega Hiriaren 750. urteurrena ospatzeko logotipoa diseinatzeko lehiaketaren epaimahaiaren erabakia jakinarazi da. Carlos Varelak (marraskilaria, animazio-zuzendaria eta bi Goya sari irabazi dituena), Josu Alavak (bankuko publizitate-arduradun ohia) eta Pilar Alvarezek (margolaria) osatutako epaimahaiak, 22 parte hartzaileek aurkeztutako proposamenak baloratu behar izan ditu. Azkenik Goiatz Uaika Maruri Olasagastik aurkeztutako diseinuak irabazi du, zeinak 300 euroko saria jasoko duenak.

Logotipo horrek Artziniegako Udalak eta Urteurrena antolatzeko Kontseiluak parte hartzen duen jarduera guztiak identifikatuko ditu aurrerantzean, duela 750 urteko gertaera historiko hori azpimarratuz.

Alfontso X.ak Araban emandako lehen forua Trebiñukoa izan zen, 1254ko abenduaren 20koa. 1256ko urtarrilaren 23an Alfontso X.ak Gasteizko forua eman zion Salviatierra izendatu zuen Hagurain herrixkari. 1256ko otsailaren lehenengo egunetan Corresi eta Santikurutze Kanpezuri forua eman zien.

Erregearen arreta jaso zuen hurrengo biztanleria, 16 urte geroago, Artziniega izan zen. 1272an, Alfontso X.ak Artziniega sortu zuen, hasierako ibilbideetatik Gipuzkoako kostaldera desbideratuz, eta, aldiz, Gasteiz eta Kantabriako Laredo eta Castro Urdiales portuen ibilbidea lotzen zituen Altubeko portua jarraituz. Edo auskalo Bizkaiko Jaurerriko Urduñako eta Balmasedako hiribilduen artean, Artziniegako alde batean eta bestean, lehiatzeko asmoarekin.

Hiribildu berriari "para siempre damosle e otorgamosle el fuero e las franquezas que han Vizcaya y el concejo de Vitoria" eman zion. Hitz horietatik nekez ondoriozta dezakegu Artziniegak eragin juridiko bikoitza zuela: bizkaitarra bere kokapen geografikoagatik eta Bizkaiko Jaurerriaren mugakide izateagatik, eta Gasteizkoa bere izaera juridikoagatik. Hortik aurrera, hiribildua Bizkaiko foruaren arabera gobernatuko zen bertakoentzat, eta zerga eta ekonomia kontuotarako Gasteizko foruaren arabera.

2022an 750 urte igaro dira egun hartatik, 1272ko azaroaren 2tik. Identifikazio-logotipo hori aurkeztuta, hasiera emango diogu 2022an zehar egingo den jarduera-programazioari, pandemiak behin betiko arnasa emango digulakoan.



LOGO DE LA CELEBRACIÓN DEL 750 ANIVERSARIO DE LA VILLA DE ARTZINIEGA

Este mediodía, en el salón de plenos del Ayuntamiento, se ha hecho público el fallo del jurado del Concurso para el diseño del logotipo de la conmemoración del 750 Aniversario de la Villa de Artziniega. El jurado formado por Carlos Varela (dibujante, director de animación y ganador de dos Goya), Josu Álava (exresponsable de publicidad de banca) y Pilar Álvarez (pintora), ha tenido que valorar las propuestas presentadas por las 22 personas participantes. Finalmente, ha resultado ganador el diseño presentado por Goiatz Uaika Maruri Olasagasti, quien recibirá el premio de 300 euros.

Este logotipo identificará en adelante todas las actividades en las que participe el Ayuntamiento de Artziniega, poniendo de relevancia la celebración de este hecho histórico que se remonta a hace 750 años.

El primer fuero otorgado por Alfonso X en Álava fue el de Treviño, fechado el 20 de diciembre de 1254. El 23 de enero de 1256 Alfonso X otorgó el fuero de Vitoria a la aldea de Hagurain, que recibió el nombre de Salvatierra. En los primeros días de febrero de 1256 concedió fuero a Corres y a Santa Cruz de Campezo.

La siguiente población en recibir la atención del monarca, 16 años después, es ya Artziniega. En 1272, Alfonso X fundó Arceniega, desviándose de sus iniciales rutas hacia la costa guipuzcoana, y siguiendo, en cambio, el puerto de Altube que unía Vitoria con la ruta de los puertos cántabros de Laredo y Castro Urdiales. O quién sabe si con la intención también de rivalizar entre las villas de Orduña y Balmaseda, a un lado y otro de Artziniega, pertenecientes al Señorío de Bizkaia.

A la nueva villa le concedió "para siempre damosle e otorgamosle el fuero e las franquezas que han Vizcaya y el concejo de Vitoria". Apenas podemos deducir de estas palabras otra cosa que Arceniega se hallaba sujeta a una doble influencia jurídica: a la vizcaína por su situación geográfica y colindancia con el Señorío de Bizkaia y a la de Vitoria por su carácter jurídico. A partir de aquí, la villa se regiría por el fuero de Vizcaya para los naturales del lugar y para asuntos tributarios y económicos por el fuero de Vitoria.

En 2022 habrán transcurrido 750 años desde aquel día, desde aquel 2 de noviembre de 1272. Con la presentación de este logotipo identificativo damos el pistoletazo de salida a una programación de actividades que tendrá lugar a lo largo de un 2022 en el que esperamos que la pandemia nos dé de verdad, ya, un respiro definitivo.